

IRAKASLEAK. DIAGNOSTIKOA**10.7. TRESNA. IKASTETXEAREN IZENA:**

Irakurri arretaz ondorengo baieztapen guztiak, eta baloratu noraino zauden ados, 1etik (ez bazaude batere ados) 4ra (erabat ados bazaude).

Hezkuntza afektiboa eta sexuala berdintasunean.				
19. Gorputza deskubritzen laguntzen diet hurrei, gorputz-atalak naturaltasunez izendatzen, bai neskena, bai mutilena, baita desberdintasun fisikoak gizonen eta emakumeen artean ere (Haur eta Lehen Hezkuntza).	1	2	3	4
20. Ezetz esaten laguntzen diet hurrei, gustatzen zaiena eta gustatzen ez zaiena jakiten, beren gorputzera eta gainerako pertsonengana iristeko mugak jartzen (hautzaroan sexu-abusua prebenitzea). Haur eta Lehen Hezkuntza.	1	2	3	4
21. Genero estereotipoak kritikoki aztertzen ditut, haurren sexu-heziketan (LGBTifobiak).	1	2	3	4
22. Mendebaldeko edertasun eta erakarpen eredu estetikoek azterketa kritiko historikoa egiten dut ikasleekin.	1	2	3	4
23. Pertsonen jatorriari buruzko galderei erantzuten saiatzen naiz, naturaltasunez, eta haurrentzako hizkera eskuragarria baliatuz.	1	2	3	4
24. Atxikimendua, lotura emozionala eta familia-eredu desberdinak lantzen ditut, ikasgelan.	1	2	3	4
25. Genero-nortasunarekiko eta aniztasunarekiko errespetua sustatzen dut.	1	2	3	4
26. Gorputzetan dauden desberdintasunak ikasten ditut ikasleekin, gorputzaren zaintza, aurrepubertaroan izaten diren aldaketa fisiologikoak (Lehen Hezkuntza).	1	2	3	4
27. Sexu-orientazioekiko errespetua eta ezagutza sustatzen dut.	1	2	3	4
28. Tratu onen etika eta harreman afektibo eta sexualetan berdintasuna lantzen ditut ikasleekin.	1	2	3	4
29. Harreman afektibo-sexualetan izaten den indarkeriarekiko kritika lantzen dut ikasleekin.	1	2	3	4
30. Harreman afektibo eta sexualen mugak lantzen ditut ikasleekin (adingabeen aurkako sexu-abusua prebenitzea).	1	2	3	4
31. Nerabegaroko aldaketa fisikoak eta psikologikoak ikertzen ditut ikasleekin (Bigarren Hezkuntza).	1	2	3	4
32. Beren gorputza komunikazio- eta plazera-iturri gisa onartzen laguntzen diet ikasleei.	1	2	3	4

Hezkuntza afektiboa eta sexuala berdintasunean.				
33. Bigarren Hezkuntzako ikasleekin etika lantzen dut harreman pertsonalei eta sexu-harremanei dagokienez: adostasuna, plazer partekatua, sexu-osasuna, leialtasuna, berdintasuna eta elkarrekiko zaintza.	1	2	3	4
34. Egoera gatazkatsuak ebazten laguntzen dut, ikasgelan, enpatiatik eta besteen eskubideen aitortzatik abiatuta: lankidetzak eta laguntza.	1	2	3	4
35. Berdintasuna genero-indarkeria prebenitzeko dela konturatzen laguntzen diet ikasleei.	1	2	3	4
36. Maitasun-mota desberdinak aztertzen ditut ikasgelan, analisi kritiko batetik abiatuta: mito erromantikoen deseraikuntza, desberdintasunak mutilen eta nesken sexualitatean ...	1	2	3	4
37. Sexu- eta ugalketa-osasunaren inguruan dauden baliabideak ikasgelara hurbiltzen dituzten erakundeekin batera lan egiten dut.	1	2	3	4
38. Sare sozialen erabilera etikoari buruzko eztabaidak proposatzen ditut, ikasgelan.	1	2	3	4
39. Sexu-orientazioari buruzko eztabaidak proposatzen ditut, ikasgelan: homosexualitateaz, heterosexualitateaz eta bisexualitateaz ...	1	2	3	4
40. Harreman afektibo-sexualetan espazio birtualen erabilera aztertzen dut, ikasgelan.	1	2	3	4
41. Espazio birtualetan emakumeen sexualizazioa aztertzen dut, ikasgelan. Sexu-ziberdelituak: sexting, sextorsio, grooming eta abarren bidezko argazkiak eta bideoak zabaltzea eta/edo argitaratzea.	1	2	3	4
42. Generoa dela-eta izaten diren jazarpena eta ziberjazarpena lantzen da, ikasgelan.	1	2	3	4
43. Ikasleen artean LGTBI mugimendua ikusarazten dut, errespetuzko eta aintzatespenezko jarrerak sustatuz.	1	2	3	4
44. Ikasleei beren burua ebaluatzen laguntzen diet, harreman afektibo-sexualen inguruan dituzten jarrerari eta ideiei dagokienez, berdintasunezko identitatearen eraikuntzan aurrera egiteko.	1	2	3	4

Talde txikian item bakoitzari emandako erantzunak adosten saiatuko gara, eta argudiatzen eta akordioak lortzen ahaleginduko gara.

Itemetan lortutako puntuazioak aztertu, eta taula honetan sailkatu:

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA		
	Zenbakiak	Zergatiak
Indarguneak, jardunbide egokiak (4 puntu lortu dituzten itemak).		
Ahuleziak edo hobetzeko egoerak (puntu 1 edo 2 lortu dituzten indizeak).		

Gure ikastetxean hautemandako indarguneak eta ahuleziak ikusita, epe laburrean zer hobekuntza-elementu egin daitezkeen zehaztuko dugu. Kontuan izan behar dugu indarguneak ere hobetu daitezkeela. Horrela, hobetzeko behar horiek formulatuko ditugu, datozen ikasturteetan aurrera eraman ahal izango ditugun helburu gisa.

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA	
HOBETZEKO BEHARRAK	LORTU BEHARREKO HELBURUAK